



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Asteazkena
2008-04-09**

VI. URTEA 1.403. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Noak kontzertua eskainiko du etzi Leidor aretoan, polemika artean

TOLOSA 'Genes and Jenes' lana aurkeztuko du israeldarrak Euskal Herrian emango duen zuzeneko bakarrean

PROTESTAK Elkarretaratzeetara deitu dute hainbat eragilek 'Euskal Herriak sionismoari stop!' lelopean z



Apattan egindako elkarretaratzea, «lan istripua salatzeko». E. EZEIZA

LABen ustez, «bihotzekoak jota hildako langilea lan istripuan hil zen»

IBARRA Apatta-Errekan elkarretaratzea egin zuen sindikatuak «heriotza salatzeko» 6

Herrian bertan izango dute eskola 0 eta 6 urte artekoek

LARRAUL Haur Eskola eta Haur Hezkuntza izateko baimena jaso du herriak 4



Zati honetan egingo dute putzu artifiziala; helburua ahalik eta kalte gutxien eragitea izango da. NEREA URBIZU

PUTZU ARTIFIZIALA LANGAURRE PARKEAN

ALEGIA Parkean ekosistema berri bat osatuko dute eta Iñaki Mezquita aholkularitza teknikaria izango da; gaur ekingo diete lanei 5

Kultura » 'Genes and Jenés' disko berria aurkeztuko du, mundu mailako lehen biran; sarrerak agortuta daude.

ERREDAKZIOA

Mundua Tolosan zikloaren baitan, kontzertu bereziak gozatzeko aukera izango da etzi, Leidor aretoan. Hain zuzen ere, Achinoam Nini, Noa, israeldar artista ezaguna izango da 20:30etik aurrera zuzeneko eskainiko duena. *Genes and Jenés* (sustraiak eta bakeroak) martxoan kaleratutako bere azken lana aurkeztuko du, eta etziko kontzertua izen bera daraman diskoa aurkezteko mundu mailako lehendabiziko biraren baitakoa da. Tolosako kontzertua, gainera, Euskal Herrian emango duen bakarra izango da. Hori dela eta, sortu duen ikusmira oso handia izan da, eta segituan saldu dira zuzeneko sarrera guztiak.

60. hamarkadako abeslariaren eragina

Tel Aviv-en jaio zen Noa, 1969an. New Yorken bizi izan zen 2 urte zituenetik 17 urte bete arte. Rimon Schoonen musika ikasi zuen, eta bertan Gil Dor bere lankidea ezagutu zuen. Elkarrekin arrakasta handia izan duten diskoak egin dituzte Israelen. Nazioarte mailan, berriaz, lau disko kaleratu dituzte: *Noa*, *Calling*, *Blue Touches Blue* eta *Now*.

Musika eragin handiena 60. hamarkadako abeslariengandik dator: Noari, Paul Simon, Joni Mitchell edo Leonard Cohen abeslariengandik, esaterako. Hala, Noaren musikarekiko eta lirikarekiko sentsibiltatea bere sustrai yemeniarrekin lotzen baditugu, alde batetik, eta Gil Dor musika-

Tolosan izango da etzi Noa, Euskal Herrian emango duen zuzeneko bakarrean

riak jazzean, musika klasikoan eta rock munduan dituen aurrekariak bestetik, soinu paregabea sortu dute.

Noak kritikaren arrakasta handia jaso duten milaka kontzertu egin ditu munduan zehar. Pakearen aldeko defendatzaile sutsua dela baieztatu izan du parte hartu duen ekitaldietan. Noak eta Gil Dorrek Israelgo Orkestra Filarmonikoarekin jo izan dute askotan, eta baita Stingedota Steve Wonder bezalako artista handiekin.

Tradizioa eta modernitatea

Duela gutxi kaleratu du Noak bere azken lana, martxoaren 11n, hain zuzen. *Genes and Jenés* izena du, eta tradizioa eta modernitatea, iragana eta orainaldia lotzen ditu; bere bizitzaz eta esperientziez ari da.

Lan honetan Noaren yemeniar jatorriaren eragin etnikoa zein kulturala nabarmen atzeman daiteke, bai Estatu Batuetan bizi izan zenekoa, edota bere egungo bizitza Israelen. Jatorrizko komposizio garraikide hauen bitartez bere historia josi nahi izan du Noa artista israeldarra.

Noa abesteaz arduratzen da, eta baita perkusioez ere, eta Gil Dorren esku doaz gitarrak zuzendari-tza musikaz arduratzeaz gain; gainerako taldekideak Gadi Seri (perkusioa), Jean Paul Zimbris (bateria), Anat Firestone (baxua) eta Gil Zohar (sintetizadoreak) dira.



Noa artista israeldarra. HITZA

Protesta ekimenak Noa israeldarraren kontzertua dela eta

ERREDAKZIOA

Noa israeldarrak eman behar duen kontzertua dela eta, hainbat eragilek protesta ekimenak deitu dituzte etzira.

Israeli boikot ekimenarekin bat eginez, Askapena Euskal Erakunde Internazionalistak «Israelgo estatuari gure mesprezua eta gaitzespena adierazteko» elkarretaratzera deitu du Leidor aretoaren aurrean, 19:45ean, *Euskal Herriak sionismoari Stop!* lelopean. Ordu horretarako ere deitua du elkarretaratzea Palestinaren aldeko Biladil elkarreak.

Manifestazioa, 12:30ean

Tolosako gazte talde batek deituta, manifestazioa egingo dute etzi, 12:30ean, Triangulotik abiatuta, *Gora Palestina askatuta! Israeli boikot!* lelopean. «Ekimen hauekin Palestinak Israelengandik bizi duen egoera salatu nahi dugu, eta Udalari ere kontuak eskatu nahi dizkiogu, ez baitugu ulertzen zergatik ekarri duten abeslari israeldar hau, bere gobernuak egiten dituen basatikeriak onartu, eta gainera bakearen aldekoa dela dioenean», diote. 19:45ean Leidor parean egingo den elkarretaratzearekin ere bat egin dute.

Tolosaldeko Segig ere bat egin du Noaren kontzertua dela eta hainbat eragilek deitu duten elkarretaratzearekin, eta «Israelen aurkako boikota bultzatzeko» paroak konbokatuta dituzte, etzi, 12:00etatik aurrera.

G Gutunak

Nora hoa, Noa?

Egunotan non-nahi ari gara aditzen Tibet herriaren zapalkuntzari aurre egiteko Txinaren aurka boikota egiteko deia, Txinan egiteko diren Olinpiar Jokoei berei ere boikot egiteko proposatu dute hainbatek, eta ez litzateke hain harrizkeoa izango, gerra hotzean ere Mosku (1980) eta Los Angeleseko (1984) jokoetan egin baitziren boikotak. Eta kirol arlotik atera gabe, ezin aipatu gabe utzi munduan egin den boikot kanpaina eraginkorra: Hegoafrikako estatuak herriar beltzak zapaltzeko egiten zuen apartheid politikaren kontra egin zena.

Hegoafrikako kirol erregeak ere, errugbiak, *pairatu* zuen boikota. 1981ean, adibidez, Hegoafrikako *springbok*-ak ezin ziren inora joan jokatzera, herrialde guztietan boikota egiten zieten eta.

Zeelanda Berrian salbu. Apartheid garaian bertara jokatzen ziren azken aldian, ordea, hegazkin pribatua hartu behar izan zuten; izan ere hegaldi publiko-etako azafatek boikota egiten zieten. Zeelanda Berrira iritsi orduko, protesta eta liskar handiak izan ziren partida guztietan, eta polizia eta manifestarien arteko borrokaldira zirela eta, azken partida bertan behera utzi behar izan zuten.

Hegoafrikako Gobernuak dirutza eskaintzen zuen musika taldeak eta kirol taldeak Hegoafrikara erakartzeko, bai eta arlo ezberdinetako beren herrialdeko ordezkaririk Hegoafrikatik mundura atera zitezen ere. Gakoa argia da: normaltasun itxura ematea.

Boikot kanpaina hark apartheid politikaren suntsipena bilatzen zuen, Hegoafrikako estatua isolatzea, eskubiderik gabekoak

laguntzea. Eta eraginkorra izan zen.

Israelgo estatua palestinar herriaren zapalkuntzan oinarritzen da, bere sorreratik gaur egun arte. Izan ere, horixe da sionismoaren oinarria: «Jenderik gabeko lur bat, lurrik gabeko jendearentzat». Leloa bete ahal izateko arazoa palestinar herritarrek ziren eta dira. Horregatik, Israeliek desagerrarazi behar zituen eta ditu, horregatik 4 miloi errefuxiatu eragin ditu, 12.000 preso politiko, lotsaren harrisia, olibondoak erauzi, hilketak masiboak, ura kendu eta argia eten... Estatu sionistak jarraituko du genozidioa azken burura eramanez arte, geroago eta ankerrago.

Palestinaren arma bakarra erresistentzia eta bizirik irautea da; presoak bezala, bere askatasuna amesten du eta bere ametsaren alde borrokatzen da. Borroka desorekatua, zalantzarik gabe, baina

Palestina guztiz ez desagertzea lortu duena; izan ere, izugarriak dira palestinarren kemena eta duintasuna.

Bestalde, Israeliek munduaren aurrean genozidio hau gauzatu ahal izateko, dirutza imbertitzen du arlo guztietan normaltasun itxura emateko: kirola, kultura, zientzia, irakaskuntza... Hegoafrikak egiten zuen bezala, beren herrialdera artistak, kirolariak, pentasariak, musika-egileak eta turistak erakartzen dituzte, eta bueltan, israeldar kultur, kirol edo musika ordezkarien bidez, estatu eta gizarte normalaren itxura ematen du.

Palestinarek kemena, duintasuna eta bizitza ematen dute herri gisa ez desagertzeko, eta guri eskatzen diguten bakarra, guri Palestinako 170 kultur eta herri mugimenduk eskatzen diguten bakarra Israeli boikot egitea da: boikot

politikoa, ekonomikoa, kulturala, akademikoa, kirol arlokoa...

Hegoafrikako erregubiliariek jatorrak ziren edo ez, ez zen hori kontua, zer ordezkatzen zuten baizik. Noari boikot egitea eskatzen ari gara. Eskatzen ari gara Tolosako Udalak ez dezala berriro israeldar ordezkaririk Tolosara gonbidatu, eskatzen ari gara musikazaleok ez gaitzela konplizea eta, jakina, eskatzen ari gara Noak ere palestinar herriaren suntsipenaren kontra egin dezala eta Israelgo estatuaren enbaxadore kulturala izateari utzi diezaiola.

Euskal Herriak, sionismoari stop!
Ruben Sanchez. Askapeneko kidea.

Tolosako Yoga eskolak hainbat ikastaro ditu udaberri honetarako

Aisia » Lehendabizikoa hilaren 26 eta 27an izango da; hemen, garapen pertsonala izango da helburua.

ERREDAKZIOA

Tolosako yoga eskolak hainbat ikastaro antolatu ditu datozen asteetarako. Alde batetik, hilaren 26 eta 27an, garapen pertsonalaren inguruko eskolak izango dira. Gortuz espresioa eta arte eszenikoak landuko dituzte tailer honetan.

Bestalde, Sanatana Dharmaa yoga eskolan, autoestima eta besarkada terapiaren inguruko tailer bat izango da maiatzaren 1ean. Saioak 10:00etatik 14:00etara bitartean izango dira. Honez gain, maiatzaren 24 eta 25ean, Tolosako yoga eskolan, garapen pertsonalari buruzko tailerra izango da.

Ikastaro hauez gain, barne isiltasunaren eskolak antolatuta, barne isiltasun horri buruzko tailerak izango dira maiatzaren 23tik 25era bitartean. Honetarako, meditazioa eta isiltasunerako erretiro bat prestatu dute. Hau soinutik aldentzeko eta deskantsatzeko oso baliagarria dela diote antolatzaileek. Izan ere, jarrera baikorra estimulatzeko, honela, norberaren esentziarekin eta batzeko, baita gure barneko isiltasunarekin ere.

Kolektorea egiteko obren inguruko bilera izango da gaur herritarrentzat

Hirigintza » 20:00etan izango da batzarra; Orieta eta Zelaiko kolektorearen lanetaz hitz egingo dute bertan.

ERREDAKZIOA

Ura, uraren agentziak eta Tolosako Udalak Orieta ibaiko eta Zelai erreka uraren kalitatea hobetu nahi dute, haietara ur zikinik ez botatzeko sistema jarrita. Hala, saneamentu sistema hobetuko dute, kolektore berria jarrita. Honekin, Orieta eta Zelaira isurtzen diren ur zikinik ez isurtzea lortuko da. Obra hau egiteko, hainbat lan egin beharko dira, txandaka, Tolosako hainbat lekutan.

Hodi biltzaile edo kolektore berri hau eraikitzeko egin behar diren lanen berri emateko herritarrei, bilera bat deitu du gaurko Udalak. Hau 20:00etan izango da, Kultur Etxean.



Aurkezpen ekitaldian Ainhoa Etxeberria euskara zinegotzia eta Angela Alamo Galtzaundiko kultur teknikaria. HITZA

«Gazteek ere badutelako zeresana poesian», errezitaldia, Leidorren

Kultura » Galtzaundi Euskara Taldeak antolatu du ekimena; hilaren 18an izango da eta 100 ikasle hartuko dute parte.

ERREDAKZIOA

Poesia eta sentimenduen mundua ezagutzeko eta olerkiak euskaraz gozatzeko aukera izango da hilaren 18an. Izan ere, Galtzaundi euskara taldeak, Tolosako Udalak lagunduta Poesia errezitaldiaren laugarren edizioa antolatu du hila-bete honetarako. Ekitaldia Leidor antzokian izango da, 18:30etik aurrera.

Emanaldiaren baitan, Tolosako eta Iparraldeko ikasleek saio artistikobate eskainiko dute. Galtzaundi Euskara Taldeko ordezkarien esanetan, «duela bi urte garbi geratu zen gazteek ere badutela zer esana poesiaren munduan».

Musikaz, irudiez eta dantzaz lagunduriko poesia emanaldi berezi honetan, Tolosako Hirukide-Eskolapioak ikastetxeko, Laskorain Ikastolako eta Orixeko Institutuko ikasleek hartuko dute parte. Hauekin batera errezitaldian, taula gainean izango dira, Baionako Etxepare Lizeokoek.

Maitasuna, natura, bizitzaren legea, Euskal Herria eta beste zenbait gai izango dira ikasleek beraien olerkietan landuko dituztenak. Guzti hauek beraiek sortutako musikaz lagundurik entzun ahal izango dira hilaren 18an, Leidor antzokiko emanaldian.

Ekitaldiaren helburua

Poesia errezitaldiaren xedeetako bat, gazteen arteko anaitasun giroa piztea da. Horregatik, ikastetxe ezberdinekin hartuko dute parte ekimenean. Honez gain, hau, gazteak poesiara eta literaturara hurbiltzeko bide erraza izan daitekeela uste dute antolatzaileek. Gainera, musika eta antzezpena saio artistikoaren osagarri eta apaingarri izango dira.

Bestalde, gazteak saioaren presaketan inplikatzearekin, iniziatiba eta gogoia sustatzen dela deritzote Galtzaundikoek. Poesia errezitaldi honekin, hau da, ekitaldi atsegina eta erakargarri batekin, euskararen prestigioa bilatzen da.

Emanaldiaren nondik norakoak

Poesia errezitaldian ari diren gazteei laguntzeko, musika tresna ugari izango dira eskenatokiak. Besteak beste, pianoa, kitarra, eskusoinua, baxua, txeloa eta txalaparta. Poesiak batxilergoko eta DBHko ikasleek sortu eta errezitaldiko dituzte. Denera, 100 lagunek hartuko dute parte ekitaldian, eta

nahi duen oro joan ahal izango da dohainik, hauek ikusi eta entzute-
ra.

Poesia emanaldia dela eta, ikastetxe guztietako gazteen olerkiak liburutegietatik argitaratuko dira jende artean banatzeko eta parte hartu duten ikastetxeetara bidaltzeko. Honez gain, liburutegietara, Kultur Etxeetara eta udaletxeetara ere ale batzuk bidaliko dituzte. Gainera, ekitaldia bideoan grabatuko dute, eta interesa dutenek eskuratu ahal izango dute.

Aurtengo jaialdian MP4 eta USBak zozketatuko dituzte parte hartzen duten ikasle guztien artean. Honekin, poesia errezitaldiko prestaketetarako egindako lana eskertu nahi diete antolatzaileek. Izan ere, ikasleak poesiak idatzi, zuzendu, errezitatzen ikasi, espresioa landu, musika eta dantzarekin lotu, irudi egokiak bilatu... Ordu asko igaro dituztelarik ekitaldia prestatzen.

Iragarki laburrak

GALDUTAKOAK

■ **Zakurrak.** Bi zakur agertu dira Orexan. Bat Mastin arrazakoa da eta bestea Husky arrazaren antzekoa. Galdu dituenak deitu dezala ondorengo telefono zenbakira: 943 68 22 14.

Laburrak

Kirolari laguntzeko oinarri erregulatzaileak onartuta

KIROLAK » Gobernu Batzarrak, martxoaren 10ean, besteak beste, hurrengo erabaki hau hartu zuen: Tolosako Udalen Kirol aurrerakuntzen kargura kirolari diru laguntzak emateko oinarri erregulatzaileak onartzea. Oinarrien jendeaurreko erakusketara egitea, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki taulan argitaratuz, eta alegazio zein erreklamazioak aurkezteko 10 eguneko epea ematea.

Lurgintzak bilerara deitu ditu bere bazkideak

NEKAZARITZA » Lurgintza Kooperatibako ordezkarien kontseiluak batzar orokorra deitu du bazkideentzat, hilaren 26rako. Baina, ohiturari jarraituz, honen aurretik, bailara desberdinetan bilerak egingo dituzte. Hemen, hilaren 21ean izango da, iluntzeko bederatzietan, Tolosako Nekazaritza bulegoan.

Jesse James hil zuteneko filma, bihar Zine-forumean

KULTURA » Bihar, Zine-forumean, *The Assassination of Jesse James By The Coward Robert Ford* (Robert Ford koldarrak Jesse James hil zutenekoa) filma izango da ikusgai. Ohikoa den bezala bi saio izango dira, lehendabizikoa 19:00etan, eta bigarrena, 21:45ean. Pelikulak Ipar Amerikako bidelapur ezagunenaren bizitza pribatua eta ekintzak ditu aztergai, beste hainbat gauzen artean.

Euskarazko komunikabidei buruz mintzatuko dira gaur

KULTURA » TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariaren bosgarren urteurreko ospakizun ekitaldian baitan, gaur mahai inguru izango da. 19:30etik aurrera, Udaletxeko batzar aretoan, euskarazko komunikabideen inguruan mintzatuko dira hainbat kazetari ezagun. Horien artean izango dira, ETBko albistegietako buru den Jaime Otamendi, Martxeko Otamendi, Berriako zuzendaria, eta Josemi Saizar, HITZAKO zuzendaria ohia.

BERRIAk kazetari bat behar du Andoaingo egoitzarako (erref. 08403)

Eskaintzen da:

- Urtebeteko kontratua (juza daiteke)
- Etorkizuneko proiektu batean parte hartzeko aukera

Eskatzen da:

- Kazetaritza ikasketak izatea

Kontuan hartuko da:

- Kazetaritza lanetan esperientzia izatea
- Quark X Press programa erabiltzen jakitea
- Autoa izatea
- Hizkuntzak jakitea

Bidali zure curriculuma gb@berria.info helbide elektronikora, erreferentzia zehaztuz.

0 eta 6 urte artekoek herrian izango dute eskola

Larraul » Haur Eskola zein Haur Hezkuntza izateko baimena jaso du herriak; Udala zein gurasoak pozik daude baimenarekin.

IMANOL GARCIA

Larraulgo Udala zein herriko gurasoak pozik daude, datorren ikasturteari aurrera bertako haurrek eskola herrian bertan izango dutelako. Hain zuzen, 0 urtetik hasi eta sei urte arteko haurrek izango dute aukera hori.

Ez da lorpen erraza izan. Kultur Etxea eraiki zenetik, Udalak behetako solairua haur eskola bezala egokitu zuen. Hezkuntza sailetik, baina, ez zieten baimenik eman, Asteasuko haur eskola ez baitzegoen guztiz beteta eta hori gertatu arte haurrak Larrauletik Asteasura jaitsi behar zituztela esan zieten.

Xabier Mujika Larraulgo alkateak azaldu duenez, «Hezkuntzatik zehaztu digute 0 eta 2 urte arteko Partzuergoak eramango duela. Erakandu honet nartu du eta irailan haur eskola martxan jarriko da». Haur Hezkuntzari dagokionez, Hezkuntza Sailak ez du baimendu Larraulek bere eskola izatea eta, beraz, Asteasuko Pello Errotaren menpe egongo da, sakanatutako gela bezala. «Horrela, bi gela izango dira hemen», azaldu du Mujikak. «Bat, 2 eta 3 urteko



Haur Eskolarako dagoeneko Kultur Etxea egokituta dago (ezkerrean), baina Haur Hezkuntzarako erabakitzeke dago balioanitzeko gela (argazkian, eskubian) edo lehen solairuko bi gelak egokituko diren. I. GARCIA



haurrentzako izango da eta bestea, 4 eta 5 urtekoentzat. Ratioa eskola txikiakoa da, baina klaustroa Pello Errotakoa izango da».

Lehenengo ikasturtean 2, 3 eta 4 urtekoak geldituko dira Larraulen. «Bost urtekoak Asteasura jaisten ohituta daude eta urte baterako Larraulen gelditzea ez dela komeni ikusi da», azaldu du alkateak. Gelak kultur etxean egokituko dira. Oraindik ez dago zehaztuta non izango diren. «Hezkuntzako

teknikiari etzi datoz. Beraiek zehaztuko dituzte zein diren baldintzak», dio Mujikak. «Adibidez, haurrei egokitutako komunak behar dira eta horren arabera solairu batean edo bestean izan daitezke».

Herriarekin identifikatzea

Lehenengo urtean Haur Hezkuntzan bederatzi haur hasiko dira. Haur Eskolan ez dute oraindik ziur zenbat haurrek izango diren. «Oraindik Partzuergoak ez digu

esan non eman behar den izena», azaldu du alkateak. Jangela zerbizua ere emango da haurrentzat. Herriko Ostatuan izango da hori eta begirale bat izango da bertan.

Herrian, beraz, pozik daude haurrak herrian geldituko direlako. «Eskola eta haur eskola lortu ditugu baimentzea eta hori guztia herriaren bizitzarako ona izango da», dio Mujikak. «Beti ikusi izan dugu, haurrak hemen bertan ikasten badute herriarekin gehiago

identifikatuko direla. Lagunak ere hemengoak egingo dituzte. Beste-tala, txikitatik Asteasura jaisten badira, gero herriaren identitateagaldur egiten du».

Udalak gaiari «bultzada handia» eman diola azaldu du alkateak eta gurasoek egindako lana gorai patu du. «Eskola eskatzeko gurasoen konpromisoa behar genuen eta ez da inongo arazorik izan. Txostenak egiten lagundu dute... Askok busti dira».

«Merezitako» porrota Lakunzarentzat

ERREDAKZIOA

Villabonako Transportes Lakunza areto futbol taldeak «merezitako» porrota jaso zuen Getxoko Artamoro taldearen aurka, 6-2 galduz, billabonatarrek azaldu dutenez. Nahiko motel hasi zen neurketa, billabonatarrek zenbait aukera izan bazituzten ere. Atsedendira hutsen iritsi ziren.

Bigarren zatirako zenbait xehetasun zuzendu zituzten, baina «motel, lokarturik, idearik gabe

atera ginen». Horrela, minutu gutxitan hiru gol jaso zituzten Lakunzakoeak. Jokaldi on batean Juankar Sanchezek gola lortu zuen. Bazirudien partidari buelta ematea zegoela, baina hurrengo joladietan beste bi gol jaso zituzten. Billabonatarren bigarren gola Asier Etxanizek lortu zuen, baloi bat harrapatu ostean. Hurrengo partida Anoetako kiroldegian jokatuko dute Lakunzakoeak, larunbatean, 16:00etan.

Zaborrari buruzko hitzaldia, bihar Gurean

Villabona » Onddolar Plataformak antolatatu du eta hiru aditu izango dira hondakinei gaiari buruzko azalpenak ematen.

ERREDAKZIOA

Herritarren kontzientzia pizteko helburuarekin, hondakinei buruzko hitzaldia antolatatu du Villabonako Onddolar Plataformak, Udala-

ren babesarekin. Hitzaldia bihar izango da, 19:30ean, herriko Gurea aretoan. Antolatzaileek azaltzen dutenez, «geroz eta zabor gehiago sortzera bultzatzen gaituen kontsumoko gizarte honetan, zaborra arazo handia bilakatzen ari daga guregun». Hortik abiatuta antolatatu dute solasaldia.

Hitzaldian, «erraustegiek herri-tarren osasunarengan dituzten eraginak erakustez gain», Kataluniako herri askotan jada martxan dagoen atez-ateko hondakinen gaikako bilketa eta materia organikoaren konpostaiaren bidez lortutako emaitzak aurkeztuko dira.

Hiru aditu izango dira hitzaldian parte hartzen. Alde batetik, Jordi Colomer, ingurumen teknikaria, atez-ateko gaikako zabor bilketaren bultzatzailea Katalunian, bereziki Villassar de Mar udalerrian; Imanol Azpiroz, konpostaiaren aditua, Usurbilgo atez-ateko gaikako zabor bilketa proiektuaren bultzatzailea; eta hirugarrena, Julia San Jose medikua, erraustegiek osasunarengan duten eraginaren aditua.

Usabal TM-Tolosa, zazpigarren postuan etxean irabazi eta gero

Mahai tenisa » Usabalekoek lau partida irabazi eta bat galdu zuten S.D.C. Gasteizen taldearen aurka.

ERREDAKZIOA

Bigarren mailan dagoen mahai teniseko Usabal TM-Tolosak garai-pena lortu zuen pasa den asteburuan S.D.C Gasteiz taldearen aurka. Horrela zazpigarren postura igotzea lortu dute.

Usabalen jokatu zuten partida. Etxeko taldearen Emiliano Anton jokalariek partida bat galdu eta bestea irabazi zuten. Eric Diezek eta Iker Mugerzak bere banakako partida zein binaka jokatutakoa irabazi zuten. Beraz, lau partida irabazi eta bakarra galdu zuten mahai tenislariak.

Azken jardunaldia izango dute larunbatean, Krafft Atletico Lasarteren aurka. Talde hori goera fasean sartzeko aukerarekin dagoenez, neurketa zaila izango da.

Hirukide
 P. I. BARRIO
 Tlfno: 943 572 949
 J. A. URSUA
 Tlfno: 943 521 527
 A. IZQUIERDO
 Tlfno: 943 572 517
 www.hirukide.org



Makina txiki batekin egingo dute lan, ahalik eta kalte gutxien eragiteko. N. URBIZU

Putzu artifiziala egiteko lanak gaur hasiko dituzte Langaurre parkean

Alegia » Ekosistema berri bat osatuko da; Iñaki Mezquita bi asteetako obran aholkularitza teknikaria izango da.

argitu bezala. «Libelulek, adibidez, ez dute leku handirik behar bizitzeko, metro koadro batzuekin nahikoa dute, baina baldintza eta faktore batzuk eman behar dira».

Bazurkaren ordezkia

Alegian bazen putzu artifizial oso egoki bat, Bazurka izenekoa, eta libelulen paradisua omen zen. Joan den irailera arte Alegian bertan bakarrik Gipuzkoan aurkitu dituzten 36 espezieetatik 29 zeuden Bazurka putzuan.

Tolosatik Alegiara sartzerakoan zegoen Bazurka, errekararen ondoren. Autobia egin zutenean putzu artifizial bat sortu zen. Han ekosistema bat eratzen zen, eta burduntzientzat leku aproposa bihurtu zen nonbait.

Baina, irailaren hasieran beste leku batzuetatik ekarritako lurrak hasi ziren botatzen Bazurkan, eta hango ekosistema desagertarazi zuten. Aitor Sarasola alkateak adierazi bezala, «obra hauek egite-

rakoan ez ginen Iñaki Mezquitarekin harremanetan jarri ez baikenuen ekosistema baliotsu horren berri; prest agertu ginen laguntzeko eta hortik sortu da Langaurreko hitzarmena».

Parkea baino gehiago

Langaurre jatorduak bertan egiteko egokিতuta dago; komunak ere baditu, eta haurrentzako jolasgune bat ere bada. Sagastigainetako bordatik gora joanda egingo dute putzu artifiziala, pinudiaren ondoren, maldan behera zoazela.

Makina txiki batekin egingo dute lana, «ahalik eta kalte gutxien egiteko asmoarekin». Iñaki Mezquita ikertzailea aholkularitza teknikaria izango da, eta egun batzuk barru putzua egokitzen doazen heinean, lekua nola doan eraldatzen aztertuko du. Azken batean, berak Bazurka ekosistema oso ondo ezagutzen zuen, eta odonatu (libelulak) bizitzan, beste askoren artean, aditua da.

Amezketan UEMAn datorren urtean sartzeko asmoa dute

ERREDAKZIOA

Dagoeneko Amezketan kultur arloko diru laguntzak erabaki dituzte. Hiru alderdien proposamenen arteko batz bestekoa egin zuten, eta honela gelditu dira kontuak: diru gehien jasoko duen kultur taldea Zazpi-Isturri pilota eskola da, 4.133 euroekin. 3.600 euro, berriz, adinekoen elkartearentzat.

Batzordeek egindako bileretan hitz egindakoak aipatu zituzten gero: UEMAn sartzeko aztertzen izan dira, eta datorren urtean sartzeko erabaki dute. Kultura batzordea turismoa bultzatzeko Tolosaldea Tourrekin jarri da harremanetan proiektuen bat aurrera ateratzeko.

aren aldekoa da, eta EAE-ANVk, berriz, ur kudeaketari buruzko hitzaldia antolatu behar du, aukera gehiago ikusteko.

Balioanitzeko gela adinekoentzat eta beste ekintzak aurrera eramateko egokিতuko dute, eta erdia jubilatuentzat eta beste erdia ikas-tarotarako: sortu daitezkeen ekintzentzat izango da.

Bestalde, gaur 20:00etan balioanitzeko gelan Enirio-Aralarko gauduzalentezako bilera egingo dute, larreetan aldatetak eman direlako, eta honi buruzko informazioa emango dute.

» DIRULAGUNTZAK

Ola auzoko industrigunea

Industriguneari dagokionez, hirigintza batzordearen bileran, dirudinez, pabilioak erreka beste aldera eraikiko dituzte. Halere, industriguneko jabeen erantzun berri baten zain daude.

Ur kudeaketarekin bueltara

Kimu Berriak Taldea (KBT) ur kontsorzioan sartu eta herritarrei %50ko hobaria egitearen aldekoak dira. Amezketako Elkarlanean Taldea urtero uraren igoera egite-

- **Pilota eskola.** 4.133 euro.
- **Adinekoen Elkarte.** 3.600 euro.
- **Musika eskola.** 1.033 euro.
- **Guraso elkarte.** 1.000 euro.
- **Berto eskola.** 1.000 euro.
- **Aitor Lertxundi.** 300 euro.

Beste laguntzak

- **HITZA egunkaria.** 1.000 euro.
- **'Galtzandi'.** 450 euro.
- **Nafarroa Oinez.** 225 euro.
- **Herrir Urrats.** 225 euro.
- **Kilometroak.** 60 euro.

Laburrak

Jai batzordea gaur bilduko da festak antolatzeko

ALEGIA » Gaur, Alegiko Kultur eta Kirol Etxean jai batzordeak bilera bat egingo du. 19:00etan hasiko da eta dagoeneko bigarren bilera izango da. Bertara, jai batzordeak interesa duten herritar guztiak gonbidatu nahi ditu, uztaileko Karmenten jaietako egitaraua borobiltzeko eta denon gustuko jaiak antolatzeko asmoz. Beraz, ideia nahiz proposamen bitxiak eman nahi izanez gero, Kultur Etxean bilduko dira gaur hauek jasotzeko asmoz, eta orain arte pentsatu dituztenak ere jakitera emango dituzte.

Pilotarien takoei buruzko tailer irekia, gaur

ALEGIA » Alegiko San Juan eskolako guraso elkarteak eta Intxurre pilotari eskolak antolatu dute gaur bi orduko tailer teoriko praktikoa (17:00etan hasita), Kultur Etxean. Eskuetako takoak erabiltzen ikasteko da, «ikusirik pilotan aritzeko zein garrantzitsua den eskuetako takoak egoki jartzea». Guraso, ume, pilotari edo nahi duen edonorentzat zuzenduta dago. Arlo praktikoa takoak prestatuko dituzte. Igor Gutierrez pilotari federazioko teknikariarekin. Parte hartzeko, bertan azalduta nahikoa da.

txokoa **h**

emanaldirako
2 sarrera pare zozketan
deitu eta eskuratu

Larunbata, apirilak 12,
20:30ean
Tolosako Leidorren

Kresala
dantza taldearen
Sehaska
ikuskitzuna



AHTren aurkako helegitea sinatzeko deialdia egin dute

Gizartea » AHT Gelditu Elkarlanak egin du deialdia eta etzi, ostiralean, amaituko da sinatzeko epea.

A. IMAZ

Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlanak Abiadura Handiko Trenaren aurkako helegiteak aurkeztuko ditu Donostiako (Gipuzkoa) epeategian. Helegite hauek herritarrek sinatuak izango dira eta horretarako Tolosa, Aduna eta Villabonan mahaiak jarriko dituzte apirilaren 11ra bitarte.

«Denbora gutxi daukagu»

AHTren aurkako helegitea sinatzeko aukera lau puntu ezberdinetan egongo da Tolosan. LAB eta EHNE sindikatuen egoitzetan, Oargi Elkartean eta Sanblaspin.

Adunan udaletxean sinatu ahal izango da, 8:00etatik 14:00etara. Billabonan Iratzar tabernan 16:30etik aurrera. Anoetan ere sinatzeko aukera jarri dute.

Elkarlaneko kideek «denbora gutxi» dutela aipatu dute, «azken momentuan jakin baitugu helegite epea irekia zegoela. Gogor salatu nahi ditugu Eusko Jaurilaritzako agintariak eta hauei laguntzen dieten alkateak, informazioa herritarroi izkutatzen digutelako».

Helegitea «orokorra» izango dela aipatu dute eta «helegitearen bidez informazio gehiago jasotzea eta AHT-ren lanak gelditzea eskatzen da».

Ostiral honetan amaituko da sinatzeko epea eta herritarrei deialdia luzatu die Elkarlanak, «proiektu honen aurka edo informazioa gehiago nahi duten herritar guztiei sinatzera agertzeko eskatzen diegu».

Bihotzekoak emanda hil zen gizonezkoa «lan istripuan hil zen»

Ibarra » Apatta-Errekan industriagunean elkarretaratzea egin du LAB sindikatuak P.C.I. ren heriotza salatzen.

ASIER IMAZ

LAB sindikatuak elkarretaratzea egin zuen atzo Apatta-Errekan martxoaren 28an hil zen P.C.I. ren heriotza salatzen. «Industriagune horretan Amenabar enpresarentzat lanean ari zela bihotzekoak eman zion eta Asuncion ospitalean hil zen. Lanean zegoela eman zion bihotzekoak eta istripu bat bezala ikusten dugu».

LABek jakitera eman zuenez eta euren datuen arabera, 2008an lan istripuen ondorioz 23 hildako egon dira. Horretaz gain, Amena-



«Martxoaren 28ko lan istripua» salatzen elkarretaratzea Apattan. ESTI EZEIZA

bar enpresako langileen ziurtasuna «hobetu beharra» aipatu zuten sindikatuko ordezkariak, «izan ere, iragan astean Amenabarrentzat N-1 errepidean lanean ari zen

beste gizonezko bat larri zauritzen eta iragan urtean enpresa honetako beste langile bat lan istripuan hil zen. Azken urtean beraz bi hildako».

S Soka motzean

«Lanean zaudenean edozein txandatan ematen du mina»

JOXE MARI IBARLUZEA

Langilea

A. IMAZ

Gaueko txanda tokatzen zaio aste honetan Joxe Mari Ibarluzeari (Ibarra, 1979) lanean. Lo egin ezinik dabil ordea.

Non duzu mina? Zergatik?

Haginean. Zaintzen ez ditudalako.

Zergatik ez zara dentistarengana joaten?

Denbora gutxi, alperkeria eta ez delako merkea.

Pobreen hortzak ez dira aberatsen hortzen berdinak beraz.

Ez. Guk ez dugu elefanteak ehizatu eta euren marfilak erosteko dirurik.

Dentistek ere zerbait jan beharko dute, ezta?

Niregandik ez dute asko jango.

Martxa honetan, hortzak zaindu ezean, zuk ere ez duzu asko jaterik izango.

Arrazoia duzu. Baina badakizu, euskaldunak medikuarengana erremediorik ez dagoenean joaten gara.

Lanean gaueko txandatan zaudenean, min handiagoa ematen al du?

Lanean edozein txandatan eman du mina, baina ez haginak bakarrik.

Komunikabideetan ez dut min horri buruzko ezer entzun.

Kazetari buruak marfilez erosten dituztelako ehiztariak.



ASIER IMAZ

L Laburrak

Heriotzaren inguruko hitzaldia bihar 17:00etan

IBARRA » Uzturpe Ikastolak hitzaldia antolatu du bihar 17:00etan Ibarra Kultur Etxean. Bertara, guraso, irakasle eta herritarrek gonbidatu dituzte. Hitzaldiaren izenburua *Heriotzaren pedagogia eraiki beharra dugu* izango da eta Patxi Izagirre psikologoa izango da hizlaria. Bi hizkuntzatan aztertu eta azalduko du gaia Izagirrek eta hitzaldiak dirauen bitartean haurrentzat ludoteka zerbitzua egongo da.

Etzi gurasoentzat hitzaldia Kultur Gunean

LIZARTZA » Gizarte Zerbitzuek guraso eta seme-alaben arteko harremanak garatu eta lantzeko hitzaldia antolatu du etzira. Hitzaldia 16;15ean hasiko da Lizartzako Kultur Gunean.

Film Laburren Zirkuitua etzi Gaztetxean

IBARRA » Galtzaundi Euskara Taldeak Film Laburren Zirkuitua antolatu du Ibarra Kultur Etxean etzira. 22:00etatik aurrera 6 film labur ikusteko aukera egongo da. «Topaguneraren, Euskara Elkartearen Federazioa, zein Galtzaundi Euskara elkartearen helburu nagusia euskararen erabilera sustatzea» dela jakinarazi dute antolatzaileek, «horregatik ekimen honetan euskarazko 6 film labur ikus ditzakegu».

Lauburu KEK 5-5 berdindu zuen etxean

LIZARTZA » Bigarren posturako lehia atzera pausua eman zuen Lauburu KEK. Santurtzi taldearen aurka ibarretrek berdinketa beste-rik ez zuten lortu eta liga amaieran gogor borrokatu beharko dute.

H Hilberriak

JOSE M^a AZURMENDI ITURRIOZ

-Goian bego-

Eskerrik asko neri lagundutako guziagatik, gorde iezaidazu leku txiki bat zure ondoan egoteko. Agur Jose M^a.

LAISTER ARTE!

Agustin Zurutuza



ORDIZIA
2008ko
apirilaren 9a

M. JESUS MARTIN CASTRO

ANDREA

URAK DAKARRENA URAK DAROA,
BAINA MARIJUEK EMANDAKOA,
GUREKIN GERATZEN DA.

Arrixu, Arantxa, Gregori, Marijo eta Uxua



ZUMAIA
2008ko
apirilaren 9a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

Jose txo Urrutiak irabazi du V. Etxauriko Harria Txapelketa

Herri-kirolak » 136,5 kiloko harriarekin 6 jasoaldi egin ondoren lortu zuen lehenengo postua, epaileak bi ustel eman arren.

ERREDAKZIOA

Etxaurin igandean jokaturako V. Etxauriko Harria Txapelketa Jose txo Urrutiak lehenengo postua eskuratu zuen, 136,5 kiloko harriarekin 6 jasoaldi egin ondoren.

Txapelketa hau Alberto Lakosta zenaren oroimenez egiten da urterota eta aurten leitzarrak lortu du

txapela, txapelketako epaileak 2 jasoaldi ontzat eman ez zituen arren.

Telleria eta Bertiz, atzetik Bigarren Urrietako Urtzi Telleria gelditu zen. Honek 4 jasoaldi egin zituen. Hirugarren postua, aldiz, Sunbilaoko Unai Bertizek lortu zuen, 3 jasoaldirekin.

Txapelketako arauen arabera, harri-jasotzaile bakoitzak 5 minutu izan zituen ahal zituen jasoaldiak egiteko.

Aurtengoa Urrutiak irabazi duen arren, txapelketako honetako markarik onena Joseba Ostolazak du, 13 jasoaldi egin baitzituen.



Julen Goikoetxeak eta Julen Galartzak ez zuten jokatu azkenean. N. GARZIA

7 partidetatik 5 irabazi dituzte Aurrerako pilotariek

Pilota » Iera Agirrek eta Urtasunek 30-7 irabazi zuten larunbatean Iruñean jokaturako Graun Txapelketan.

N. GARZIA

Joan den asteburuan Leitzako Amazabal Pilotalekuan Nafar Jokoen barruan jokaturako 7 partidetatik 5 irabazi zituen Aurrerako Pilota Eskolak.

Emaitzak

Lehenengo 2 partidak Aurrerako pilotarien artean jokatu zituzten. Mikel Sagastibelza Eguesek eta Oier Igartuak 18-8 irabazi zieten Asier Gili eta Iñaki Saralegiri, eta Ander Alduntzinek eta Aimar Gilek, 18-13, Beñat Altxelai eta Joanes Illarregiri. Ander Eskuderok eta Josu Zabaletak Erreka taldeko bi-

kotearen aurka 14-18 galdu zuten, baita Xabier Erasok eta Ibai Gilek ere Oberenakoen aurka (4-18). Markel Barriolak eta Mikel Onsalok Oberenako beste bikoteari irabazi egin zioten (18-0). Azkeneko 2 partidak ere Aurrerakoek irabazi zituzten: Anartz Olanok eta Joxerra Aldaregiak Zugarralderen aurka (18-9) eta Martin Etxeberriak eta Xabier Jaunarenak Club Natacionen aurka (22-18).

Julen Goikoetxeak eta Lenitz Galartzak jokatu behar zuten partida bertan behera gelditu zen.

Beste txapelketak

Iera Agirrek eta Urtasunek 30-7 irabazi zuten Iruñean jokaturako Graun Txapelketan.

Zaramagako txapelketari dagokionez, Sagastibelza Lasartek eta Anduezak irabazi egin zuten (18-2), Aldaregiak eta Hernandorenak, berriz galdu egin zuten.

Foroetan bildutako iritzien txostena aurkeztu dute

Agenda 21 » Lekunberri eta Leitzan egindako foroetan herritarrek emandako iritziek txostena egin dute.

NAIARA GARZIA

Agenda 21 proiektua daraman lantalde teknikoak (Terra-Prometea) Lekunberri eta Leitzan otsailaren 7an eta 26an egindako foroetan txostena aurkeztu du eta bertan bileran horietan bildutako herritarren iritzia aurkeztu dituzte.

Leitzan 18 pertsonen hartu zuten parte, Goizueta, Areso eta Leitzakoak. Terra-Prometeatik azaldu dutenez, foro hauei esker «bertan parte hartu zuten pertsonen iritzia eta ikuspuntuak jaso ahal izan dituzte hezkuntza, kultura, eta ekonomi arloen inguruan».

Hezkuntza

Txostenean oso baikortzat jotzen dituzte Areso, Leiza eta Goizuetan dauden eskolak, izan ere, 18 urte arte Leitzan ikasteko aukera dute gazteek eta ekipamenduak egokiak dira. Hezkuntza eskaintzari dagokionez, kalitatea ona dela dio txostena, eta hezkuntza-zentruen eta zerbitzu publikoko beste zenbait zentron artean koordinazio ona dagoela. Bestalde, zonaldean PROA izeneko zerbitzu eskatzeko aukera dagoela dio, laguntza berezia behar duten ikasleei zuzendutako zerbitzua, alegia.

Arlo honetan hobetu beharrekoak diren puntuak dagokionez, Goizuetan, esaterako, 0-3 bitarteko umeentzat ez dago hezkuntza eskaintzarik, eta Leitzako haur eskolako ordutegia hobetu daitezkeela dio, gurasoen lana eta familia aurrera ateratzeko aukerak hobetze aldera.

Hezkuntza eskaintzari dagokionez, zonaldean ez dago FP egiteko aukerarik, Goizuetan DBHko lehenengo mailak desagertzeaz daude eta herritarrek horren beldur dira. Honetaz gain, eskola-porrota zonaldean nabarmena da (baina hau arazo orokor bat dela diote), eta gazte asko oinarrizko hezkuntza amaitu ondoren, ikasketak utzi eta lanean hasten dira. Ez dago, beraz, prestatzen jarraitzeko kontzientzia hori.

Honetaz gain, jarduerak eskasak izan ohi dira herrietan, eta gauza bera gertatzen da Leitzaldean. Hau ere hobetu beharreko beste puntu bat litzateke, baina ume kopuruak antolatzen dituzten jarduerak eta beraien prezioa baldintzatzen ditu. Zentzu berean, txosten honen arabera, 12-16 urte bitarteko gazteentzat jarduerak gutxi daude, baita helduentzat ere. Guzti honetatik atera duten ondorio nagusia ondorengoa da, gero

eta gutxiago inplikatzeko direla herritarrek hezkuntzan, adin batetik aurrera, bereziki.

Osasun eta gizarte zerbitzuak

Txostenak jasotako iritzien arabera, Leitzako osasun-etxea txikia gelditu da eta hobekuntza bat behar du. Gainera, eguneko zentro baten beharra dago zonaldean, baita zahar etxe batena ere. Espezialitatei dagokionez, ginekologia, psikologia eta errehabilitazioa ez dira Leitzan eskaintzen eta horren beharra azpimarratu zuten foroan. Gainera, 65 urtetik gorako herritarrentzat zahartzarora bitarte hutsune bat dagoela dio txostenak, zonaldean egiten diren jarduerak dagokionez eta etorkinak integratzeko programa bat martxan jartzea ere beharrezko ikusten dute. Arlo honekin amaitzeko, osasun-kontseilua ez dela biltzen dio txostenak, beraz, beharrezkotzat jotzen dute osasun-etxearen eta udalen arteko harremanak lantzea.

Kultura, kirolak eta euskara

Kultur-jarduerak aurrera eramateko eta jendea erlaziozatzeko herrietan lokal txikien garrantzia azpimarratzen du txostenak, baita bertako elkarteek egiten duten lana ere. Gainera, zonaldean euskararen erabilera oso altua dela dio.

Baina beharrei dagokionez, Leitzan ez dago kultur-etxerik (ezta Areson ere), eta zineak konponketa bat behar du. Goizuetan, berriz, ez dago ez zinerik, ezta liburutegi-

rik ere. Ez Leitzan ez zonaldean, ez dago kultura teknikaririk eta herritarrek kultur eta kirol jardunaldean parte hartzea bultzatzea beharrezkoa da. Zentzu honetan, kultur eta kirol jarduerak antolatzeko herrien arteko koordinazioa ezinbestekotzat jotzen dute eta denen artean programa bat egitea. Ohikoak ez diren jarduerak eskaintzea proposatzen dute, eta hauen inguruko informazio banatzea, herritarrek ezagutu ditzaten.

Ekonomia

Txostenaren arabera, zonaldea leku onean dago eta hori etekina ateratzeko puntu bat litzateke. Zenbait pertsona oinez joan daitezke lanera eta hori bizi kalitatea da. Industriari dagokionez, Sarririk azken urteetan langile gazteak hartu ditu, eta Aresoko industrialdea baikorra da zonaldearentzat, Leitzakoa ez bezala.

Arlo honetan hobetu beharrekoak diren gauzei dagokionez, lanaren kalitatea eta lan baldintzak hobetu daitezke, batez ere emakumeen kasuan. Gainera, gazte gehienek kanpoan egiten dute lan eta enpresa berriak sortzeko laguntza gutxi daude, enpresa handiekiko dependentzia baitago.

Ganaderitza eta nekazaritza diru-laguntzei esker bizi dela dio txostenak, eta beste bide batzuk biltzea beharrezkoa dela, hau da, lana dibertsifikatzea, baita denda txikiei laguntzea ere.

Hauek izan dira, beraz, Terra-Prometeak txostenean jasotako herritarren iritzia.



Zonaldearen egoeraren inguruko txostena aurkeztu dute. PABLO FEO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendariak: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aitzondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altxo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Hitzaldia

■ **Tolosa.** Jose Antonio Gonzalez hitzaldia adimen emozionalari buruz Laskorain Ikastolan, Usabalgongo areto nagusian 19:00etatik aurrera.

Deialdiak

- **Ibarra.** VII. Misio Astearen barruan, afari solidarioa San Bartolome parrokiako lokaletan ostiralean. Txartelak, bertan 10 eurotan.
- **Irura.** Hilaren 12an egingo den omenaldiko bazkarirako txartelak salgai daude Zaharren Biltokian, udaletxean eta liburutegian, 20 eurotan helduentzat eta 10 eurotan 12urte artekoentzat.
- **Tolosa.** Tolosaldeko eta Leizaldeko Hitzak antolatutako mahai inguru izango da euskarazko komunikabideen inguruan, 19:30ean udaletxeko batzar aretoan. Hizlariak: Martxelo Otamendi, Jaime Otamendi, Joxemi Saizar eta Jon Miranda. Moderatzailea: Nerea Pikabea.
- **Tolosa.** Atxerito (2.362 m) eta Anie (2.505 m) mendietara irteera antolatu du Oargi elkarteak datorren astebururako. Izen-ematea, elkartearen edo oargi@telefonica.net
- **Tolosa.** XIV Orduko Martxa maiatzaren 18an izango da. Izen-ematea, Aralarko Adiskideen elkartearen (Araba etorbidea 5) edo a.adiskideak@terra.es helbidean.

Erakusketa

- **Ibarra.** VII. Misio Astearen barruan, Arrupe aitaren biografiako argazki erakusketa Parrokia etxeko behealdean 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.
- **Tolosa.** Encarna Mejia margolari alegiarraren olio-pinturak ikusgai Itaia taberan.
- **Tolosa.** Angel Arbe artistaren Biogeometriak lanen erakusketa Aranburu Jauregian.

Ikastaroak

■ **Tolosa.** Uretako sorosle ikastaroa antolatu du Gurutze Gorriak Usabal kiroldegian. Izen-ematea, 607 845 574 telefonoan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Bronte, C. Korroa kalea, 10. 943 676013.
- **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunkizunik.

Etxetik kanpo topatzen direnak



IBON AZPILIKUETA (ALEGIA) ● Une egokia harrapatzen jakin behar du argazkilari onak. Ibonek behintzat bete-betean asmatu zuen argazki zoragarri honekin. Argazkia bidaltzearekin batera, hauxe kontatu digu: «Marokoko Erg Chebbiko duntetan atera nuen argazki hau. Goizeko 9ak aldera ikusi nuen gure atzekaldean gamelu hauek. Bi ordu lehenago ilargi bete izkutatu zen eguzki beroari leku uzteko. Benetan, Maroko leku zoragarria da eta bertakoek jartzen dute kolore; egia esanda, aukeraketa zaila izan da».

ANE ZABALA (TOLOSA) ● Paisaiek izaten dute arrakastarik handiena argazki ateratzerakoan baina erakuntzek ere badute berezko xarrena. Adibide garbia Ane Zabala tolosarrak erakutsi digu berak bidali digun argazkiarekin: «Pasa den Aste Santuan Poloniatik ibili naiz. Argazki hau Poznan izeneko herrian aterata dago eta bertan hango etxe polit batzuk agertzen dira», azaldu du tolosarrak.



A Agurrak



Urte askoan!

Asier Azkolain Dorransoro. Gaur 11 urte. Amona Tereren partetik zorionak eta muxu handi bat.

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak